



EBAZPENA, 2016ko ekainaren 6ko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan lehiaketa-aldian lortutako puntuazioak argitara emateko modua eta lekuak, baita haien kontra erreklamatzeko epea, modua eta lekuak ere, argitara ematen da (hautaketa-prozedurak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitu ziren).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitu zituen. Agindu horrek 8.7 atalak xedatzen du merezimenduen baremazioa amaitu ostean, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek eta Batzorde Barematzaileek izangai bakoitzari lehiaketa-aldian esleitutako behin-behineko puntuazioa argitaratuko dela.

Halaber, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez aipatutako puntuazioak argitara emateko modua eta lekuak adieraziko dira, baita horien aurkako erreklamazioak egiteko epea, modua eta lekuak ere.

Horren arabera,

## EBATZI DUT

**1.- Hautaketa-prozesua deitzen duen aginduaren I. Eranskinen I. (I.1, I.2, I.3, I.4), II. (II.1, II.2, II.3, II.4) atalen eta III.3. eta III.4 azpiatalen merezimenduak, bai eta II. Eranskinen I. (I.1, eta I.2) atalaren eta III.1.1, III.1.2, III.1.3, III.1.4 eta III.2.4 azpiatalen merezimenduak ere (Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematuak).**

1.1.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Emaitzak" -> "Lehiaketa aldia - Partziala".

1.2.- Behin-behineko zerrenda 2016ko ekainaren bigarren hamabostaldian emango da argitara prentsan eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian aldez aurretik iragarriko den datan: <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Berriak" atalean, eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> -> "EPE2016. Bigarren Hezkuntza" - "Lehiaketa-aldia".



1.3.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren kontra, lau laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Erreklamazio horiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaizkio eta Zuzenean-en edo Administrazio Prozeduraren legeak zehazten dituen gainontzeko erregistro ofizialetan aurkeztu beharko dira. Horretarako, ebazpen honen I. Eranskinean gaineratutako eredia beteko da eta, behar izanez gero, justifikatzeko dokumentazioa ere gaineratuko da.

1.4.- Puntuazioen behin betiko zerrenda, erreklamazioak berrikusi ondoren, behin-behineko zerrenda bezala emango da argitara.

1.5.- Hautaketa-prozesuan onartutako izangai guztien merezimenduak barematuko dira, programazio didaktikoa entregatu ondoren eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren; dena den, oposizio-aldia gainditu duten izangaiei besterik ez zaizkie lehiaketa-aldian lortutako puntuazioak aplikatuko.

**2.- Hautaketa-prozesua deitzen duen aginduaren I. Eranskineko III.1 eta III.2 azpiatalen merezimenduak, bai eta II. Eranskineko II. atalaren eta III.2.1, III.2.2 eta II.2.3 azpiatalen merezimenduak ere (Batzorde Barematzaileek barematuak).**

2.1.- Merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrendak dagokion Batzorde barematzaileko "Iragarki-taulan" emango dira argitara, espezialitatearen arabera:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) ->  
"EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi ->  
"Baremazio-Batzordeak" -> batzordearen zenbakia adierazi ->  
"Iragarki-taula".

2.2.- Batzorde Barematzaile bakoitzak argitara emango ditu merezimendu horien puntuazioen behin-behineko zerrendak 2016ko uztailaren 5etik 15era; espezialitate bakoitzean, barematu behar diren izangai kopuruaren arabera eta, ondorioz, baremazioa amaituko den dataren arabera.

2.3.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren kontra, lau laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Erreklamazio horiek espezialitateko Batzorde Barematzaileko buruari bidaliko zaizkio eta dagokion Batzorde Barematzaile horren egoitzan aurkeztu beharko dira. Horretarako, ebazpen honen II. Eranskinean dagoen eredia beteko da eta, behar izanez gero, justifikatzeko dokumentazioa ere gaineratuko da.



Behin-behineko zerrendarekin batera, Batzorde Barematzaileek erreklamazioak jasotzeko lekua, egoitzaren barruan, eta ordutegia emango dituzte argitara.

2.4.- Erreklamazioak berrikusi ondoren, puntuazioen behin betiko zerrendak behin-behineko zerrendak bezala emango dira argitara.

2.5.- Sartzeko prozeduran (txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetakoak dutenentzat), oposizio-aldiaren 1. proba gainditu duten izangaien merezimenduak barematuko dira.

Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen kidego batera iristeko prozedurari dagokionez, izangai guztien merezimenduak barematuko dira.

Prozedura bietan, oposizio-aldia gainditu duten izangaiei besterik ez zaizkie lehiaketa-aldian lortutako puntuazioak aplikatuko.

3.- Argitara ematea Ebazpen hau Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Internet-eko helbide hauetan (<http://www.irakasle.eus> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>).

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 6an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

KONRADO MUGERTZA URKIDI



## I . ERANSKINA / ANEXO I

## EPE 2016: BIGARREN HEZKUNTZA / OPE 2016: ENSEÑANZA SECUNDARIA

**ERREKLAMAZIOA** aurkezten du honen aurka / Presenta **RECLAMACIÓN** contra:  
Lehiaketa-aldian lortutako behin-behineko puntuazioak (**Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutako meritua**)/ Las puntuaciones provisionales alcanzadas en la fase de concurso (Méritos baremados por las **Unidades de la Dirección de Gestión de Personal**)

I. Eranskinen I,II atalak eta III.3 eta III.4. azpiatalak, eta II. Eranskinen I atala eta III.1.1, III.1.2, III.1.3, III.1.4 eta III.2.4 azpiatalak <i>Apartados I,II y subapartados III.3 y III.4 del Anexo I y del apartado I y Subapartados III.1.1, III.1.2, III.1.3, III.1.4 y III.2.4 del Anexo II</i>	
Abizenak / Apellidos:	
Izena / Nombre:	NAN / DNI:
Telefonoa / Teléfono:	Espezialitatea / Especialidad:
Zera adierazten dizu / Expone	
Erantsitako agiriak / Documentación aportada	
Data, tokia / Fecha, lugar	Izenpetua / Firmado

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA /  
**A LA ATENCIÓN DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL**  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Donostia-San Sebastián,1 -01010 Vitoria-Gasteiz



## II. ERANSKINA /ANEXO II

## EPE 2016: BIGARREN HEZKUNTZA / OPE 2016: ENSEÑANZA SECUNDARIA

**ERREKLAMAZIOA** aurkezten du honen aurka / Presenta **RECLAMACIÓN** contra:

Lehiaketa-aldian lortutako behin-behineko puntuazioak (**Batzorde Barematzaileek** barematutako merituk)/  
Las puntuaciones provisionales alcanzadas en la fase de concurso (Méritos baremados por las  
**Comisiones Baremadoras**)

I. Eranskinen III.1 eta III.2 atalak eta II. Eranskinen III.2.1, III.2.2 eta III.2.3 azpiatalak  
*Apartados III.1 y III.2 del Anexo I y apartado II y subapartados III.2.1, III.2.2 y III.2.3 del Anexo II*

Abizenak / Apellidos:

Izena / Nombre:

NAN / DNI:

Telefonoa / Teléfono:

Especialitatea / Especialidad:

Zera adierazten dizu / Expone

Erantsitako agiriak / Documentación aportada

Data, tokia / Fecha, lugar

Izenpetua / Firmado

.....ESPECIALITATEKO BAREMAZIO BATZORDEAREN BURUARENTZAT  
A LA ATENCIÓN DEL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN BAREMADORA DE LA ESPECIALIDAD DE.....